

ASKATASUNAREN EGARRI

Betidanik, militarismoaren zeregin nagusia gizakien kontrolpea lortzea izan da, gure era eta sinesmen guziak apurtuz eta gure buruak makur eraziz. Baina egoera honek aldatu behar du. Honen erakusgarritzat zera daukagu, gero eta gazte gehiago daudela soldadutzarik egin nahi ez dutenak. Egia esateko, historia guzian zehar oso jende guttik egin nahi izan du soldadutza, baina orain arte inork ez zuen ezer garrantzizkorik egin egoera hau aldatzeko.

Urtero egin da soldaduzkaren zozketa famatua. Ordenagailu batean sartzen dira zenbaki guziak eta loteria izango balitz bezala banatzen dira destinoak baina ezberdintasun ttipi batekin irabazlea da zenbaki galtzaile bat duena. Zoritxarrez, ez dago zenbaki bat bera ere ateratzen ez dena eta denok gaituzue galtzaile. Horregatik gazteok saiatzen gara zenbakirik ez hartzen zozketa horretan. Nagusiki, bost era daude helburu hau lortzeko.

Arrazoi on bat ematea soldaduzkarik ez egiteko. Adibidez orain ez dela asko hil zinela eta zure gogoa dela lurrean dagoena. Baina normalean ez dute ontzat hartzen arrazoi bat bera ere. Esate baterako iaz, mutil nafar erraldoi hankamotz bat behartu zuten soldaduzka egitera.

Ordezko Zerbitzu Zibila (OZZ) egitea. Soldaduzka osoa egin beharrean, bi hilabetez egin behar da bakarrik, baina beste bi urte osotan zehar lan egin behar da, estatuari zerbitzu bat egiten deus ez kobratu gabe. Hau egiten dutenei ondo baino hobeto sartzen diete ziria: soldaduzkaren zatirik gogorrena bete behar dute (piperpotoa zin egitea barne dela ere beraien betebeharretan) eta gainera beren bizitzetako bi urte osoak alferrik galdu behar dituzte (normalean, Gurutze Gorrian lan egiten). Beren buruei esaten diete soldaduzka gehiena ez dutela bete behar (baina bai okerrena).

Kontzientzi eragozpena egitea. Honek ere zerbitzu sozialak egitea suposatzen du, baina soldaduzka era bat baztertuta utzirik. Gainera zerbitzu hauek bulegokoak izaten dira eta ordainduta (gaizki ordainduta baina hori bada zerbait). Zerbitzu hauen luzamena bi urtetakoa izaten da eta etxean lo egiten da beti.

Militar beharrei lotuta dagoen pertsona guztia eta orden erlijioso, gizaldeko, filosofiko edota beste edozein natura berberaren arrazoiengatik Zerbitzu Militararekin ados ez badago, eragozletzat deklaratu izan daiteke. Arrazoi politikoak ez dira ontzat hartzen.

	1.989	1.990	1.991
ARABA	12,05	31,54	38,37
BIZKAIA	12,88	35,55	57,30
GIPUZKOA	12,21	22,90	33,80
NAFARROA	9,45	15,52	27,13
EUSKAL HERRIA	12,06	28,48	43,92
ESPAINIA	5,49	11,57	11,39

Euskal Herriko objezio datu erlatiobak (%) urteroko militar kopuruarekiko.

Intsumiso bezala azaltzea. Intsumisioa desobedientzia zibilaren era bat da, kontzientzi eragozpenaren lege bat onartzen ez duena: intsumiso edo managaitzek ez dute arrazoirik ematen soldaduzka ez egiteko eta ez dute Ordezko Zerbitzu Zibila bete nahi. Hau dela eta, Intsumisioa ez dago oraindik legalki onartuta. Legeak zigortzen ditu intsumisoak lau urte, bi hilabete eta egun batez gartzelatuta egotera. Hala eta guztiz, oraindik ez dute intsumiso askorik gartzelaratu.

	1.989	1.990	1.991
ARABA	1,15	2,82	8,43
BIZKAIA	0,94	1,20	3,74
GIPUZKOA	1,03	2,10	5,65
NAFARROA	1,58	3,32	7,10
EUSKAL HERRIA	1,09	1,94	5,28
ESPAINIA	0,14	0,22	0,52

Euskal Herriko soldaduzkari intsumisio datu erlatiboak (%) urteroko militar kopuruarekiko.

Kontzientzi eragozpenaren historia

Kontzientzi eragozpenaren ibilera bi gerrate muldialak eta gero hazi zen. Lehenengo eragozleak Jehova-ren Testiguak izan ziren 1958. urtean. Hala ere, beraien kontzientzi eragozpenak ez zeukan edukin politikorik.

Hirurogeigarren hamarkadaren bukaeran ikasle batzuek kanpaina bat hasi zuten kontzientzi eragozpenaren onarpena eskatuz. Geroxeago lehen objetoreak sortu ziren, lehena Pepe Beunza izan zelarik, 1971. urtean. Lehen objetore hauek kartze-laratuak izan ziren ordezko zerbitzu zibil bat eskatzeagatik.

1978. urtean, Hospitalet-eko Can Serra auzoan bost gazteek zerbitzu zibil bat antolatu zuten beraien zuzendutakoa. Beraien atxiloketak protesta internazionala erakarri zuen eta 1976. urteko Uztailaren 30ean barkatu zituzten. Honela, estatu guziko bertze gazte taldeek desobedientzi adibide berdina jarraitu zuten, beraien zuzendutako zerbitzu zibilak antolatuz.

1976. urteko Abenduan Gobernuak kontzientzi eragozpena onartu zuen, baina asmo erlijiosoetara mugatuz. Objektoreek ez zuten lege hau onartu eta «Kontzientzi Eragozpen Mugimendua» (K.E.M.) sortu zuten 1977. urtean. Mugimendu honen asmoak hauek ziren: legearen kontrako boikota zuzendu, atxilotuta zeuden objektoreak askatu, mundu guzian zehar loturak aurkitu eta zabaldu, eta talde ezberdinen artean gai teorikoak elkar trukatu.

Boikotak arrakasta izan zuen eta objektoreen soldaduzka atzeratu zen kontzientzi eragozpena erregulatzen zuen lege bat sortu arte, horrela atxilotuak askatuz.

1978. urteko konstituzioak kontzientzi eragozpenaren eskubidea onartu zuen eta jakinerazi zuen kontzientzi eragozpenaren eta Ordezko Zerbitzu Zibilaren lege berria. Lege hau 1984. urteko Abenduaren 28an onartu zen (K.E.L. 48/1984), baina ia objektore guziek baztertu zuten eta oso gogor kritikatu izan zen erakunde ezberdinetatik. Erakunde hauek ordezkatuz, Herriaren Defentsoreak 1985. urteko Otsailaren 28an Hauzategi Konstituzionalean errekurtsio bat aurkeztu zuen, baina erantzuna ezezkoa izan zen.

Kontzientzi Eragozpena Mugimendua lege hau deuseztatzen saiatu zen Eragozpen Kolektiboa erabiliz. Kolektibo honek uko egin zion kontzientzi arrazoiak emateari eta Ordezko Zerbitzu Zibila betetzeari. 1988. urteko Otsailean, Kontzientzi Eragozpen Kontseilu Nazionalak (K.E.L.-ak sortutako erakundea kontzientzi asmoak hauzi egiteko) eskakizunak ezeztatzen eta arrazoiaren zabalketa eskatzen hasi zen. Hau zela eta, 1989. urteko Urtarrilean sortu zen intsumisioa.

1990. urteko Urtarrilaren 12an Goreneko Hauzitegiak Kataluniako Kontzientzi Eragozpen Elkarteak aurkeztutako errekurtsio bat onartu zuen, baliogabe utziz Ordezko Zerbitzu Zibila onartzen zuen legea. Justizia Ministeritzak ordea, ez zituen araurik aldatu eta oraindik ere lehengo arauak beren balioa gordetzen dute.

Espainiar estatuan zenbait lege egin dira kontzientzi eragozpena erregulatzeko eta baita ere trabak jartzeko. Legeak hauek dira:

Abenduaren 26ko 48/1984 Legeak (BOE 311) kontzientzi eragozpena eta Ordezko Zerbitzu Zibila arautzen ditu.

Abenduaren 26ko 8/1984 Lege organikoak (BOE 311) baliabideak eta zigortze-bideak arautzen ditu.

Kontzientzi Eragozpenerako Kontseilu Nazionalaren Araudiak (BOE 101) kontzientzi eragozleentzat jotzeko prozedura arautzen du.

Urtarrilaren 15eko 29/1988 Erret-Dekretuak (BOE 18) kontzientzi eragozleen Ordezko Zerbitzu Zibila arautzen du.

1988ko martxoaren 15eko Agindu Ministerialak Ordezko Zerbitzu Zibilak garatu behar dituen sektoreak arautzen ditu.

Beste aldetik, Ordezko Zerbitzu Zibila 1989. urteko erdialdean hasi zen funtzionatzen. Orduan, kontzientzi eragozpen elkarte gehienak intsumisio deklaratu ziren. Urte horretan eta 1990. urteko hasiera arte objektore talde txiki bat bakarrik izan da deitua Ordezko Zerbitzu Zibila betetzera. (Adibidez, 1990. urteko Otsailean 477 objektore ziren Ordezko Zerbitzu Zibila betetzen ari zirenak Espainiar Estatu osoan). Gaur egun, bi mila intsumisio baino gehiago daude. Gobernuak errepresioi selektibo bat daroma

beraien gain, adibide eman nahian, zailtasun handiak dituelako objetoreak daukaten euskarri sozialagatik.

Eragozpena European

Belgikan, Danimarkan, Italian, Frantzia eta Suomin ezik, kontzientzi eragozpena oso finkatuta dago Europako beste herrialde guzietan.

Nederlanden, Suedian eta Austrian eragozle taldeek kontzientzi eragozpenaren legeak onartu dituzte eta ez dute borrokan jarraitzen.

Herrialde hauetako gobernu bakoitzak irtenbide ezberdinak asmatu ditu kontzientzi eragozpenaren arriskua aldentzeko. Adibidez, Belgikan Ordezko Zerbitzu Zibila lan zikinetara mugatzen da. Norvegian eta Italian berriz, eragozpen eskariak sistematikoki ukatzen dituzte. Suitzan eta Grezian ordea, kontzientzi eragozpena ez dago legalki onartua eta intsumisoak kartzelara doaz zuzenean. Zorionez, Alemanian eta Estatu Espainiarrean ez dituzte horrelako irtenbiderik aurkitu.

Alemanian auzitegi bat egin zuten 1977. urtean eragozleen kopurua kontrola zezan, baina hala eta guziz kontzientzi eragozpenak igotzen jarraitu zuen. Orduan alemaniar gobernuak konturatu zen Ordezko Zerbitzu Zibilarik esker diru anitz aurrezten zuela (1988. urtean, 2200 miloi marko) eta emakumeak ere behartu zituzten Ordezko Zerbitzu Zibila egitera. Alemanian oraindik ez da intsumisioa sortu eta gobernu osoa pozik dago.

HERRIALDEA	1.980	1.990
ALEMANIA	10,09	26,56
AUSTRIA	11,45	11,43
BELGIKA	3,40	4,36
DINAMARKA	3,55	2,41
ESPAINIAR ESTATUA	0,22	11,57
EUSKAL HERRIA	—	28,48
SUOMI	2,88	2,72
FRANTZIA	0,43	1,22
HOLANDA	8,71	7,50
ITALIA	1,60	2,28
NORVEGIA	11,06	10,87
SUEDIA	8,97	11,11
SUITZA	0,89	1,45

Europako militar kopuruarekiko objezio portzentaiak.

Heriotz usaina soldaduzkan

Defentsa Ministeritzak emandako datuen arabera, 1983. urtetik 1988. urteraino, 540 gazte hil ziren soldaduzka egiten zutenean. Baina datu hauek ez dira guziz fidagarriak, zeren eta gutxienez 54 gazte gehiago ezagutzen dira hil zirenak eta zerrenda horretan ez direnak. Horrez gain, badira zenbait izen zerrenda horretan birritan agertzen direnak.

1989. urtean, 254509 gaztek bete zuten soldadutza eta haietariko 3.507 gaztek istripuak izan zituzten.

Bertze aldetik soldatu anitz beren buruak hiltzen saiatzen dira eta sarritan bere helburua lortzen dute. 1984. urtean adibidez, bere burua hil zuen zibil bakoitzagatik, hiru militarrek hil zuten beren burua.

KAUSA	HILAK						ZAURITUAK					
	84	85	86	87	88	89	84	85	86	87	88	89
IBILGAILUETAN	14	25	22	24	141	147	1.327	771	656	598	1.166	2.526
AIREONTZIETAN	—	—	2	—	—	—	—	—	—	—	—	4
ITSASONTZIETAN	—	—	—	—	2	—	—	—	—	10	9	8
JAUZGAILUEKIN	—	—	3	1	—	—	—	—	8	7	9	12
KIROLAK	—	—	1	1	—	1	—	—	50	30	50	58
ARMAK	23	14	13	4	9	2	155	108	74	43	52	65
BESTEAK	17	10	12	10	10	10	368	484	287	273	341	273
GUZTIRA	84	49	53	40	162	160	1.850	1.363	1.075	961	1.627	2.947

Soldadu zaurituak eta

hilak 84-89 aldian.

Autozauriak ere kontutan hartu behar dira zeren eta, 1986. urtetik alde honetara, %2650an gehiagotu egin bait dira.

Soldadu berrien ezegokitasunaren arrazoiak anitz dira, esate baterako mundu zibilaren (senideak, lagunak, lantokia, etab.) urruntasuna: haseraren erritoak, nahiz ofizialak (instruzio militarra, moldaketa eta araudi militarra) edota extraofizialak (betidanik egin diren hasberrikeriak esate baterako idiarena egitea pezeta batekin edo potroak kixkaltzea); nortasun galtzea (orrazkera eta jazkera derrigorrezkoak); denbora galtzearen sentipena; nagusien gaizkihartzeak aginduen inposaketa, batzuetan kontraesankorrak direnak lan zikinen egin beharra; gogo eskasa: soldata urria, barren-gotasun gabezia; arazo psikikoak eta abar amaigabe bat.

	1.986	1.987	1.988	1.989
BURUHILKETAK	31	29	24	17
B.H. HUTS EMANAK	24	8	30	50
AUTOZAUARIKETAK	10	15	32	265

Buruhilketen, buruhilketa huts emandakoen eta autozuriketen kopuruak 1986-89 aldian.

Industri militarra: gerra baten etekinak

Estatu Espainarrean 70 enpresak lan egiten dute ejerzitoarentzat eta bertze 400 edo 500 enpresak, militar arloan erabiltzen diren produktuez hornitzen dituzte. Espainiar industri militarra hiru eratakoa da: publikoa, pribatua eta multinazionala. Militar produkzio publikoa INIren (Instituto Nacional de Industria) enpresek egiten dute eta hiru arlo garatu dezakete: defentsa, automozioa eta elektronikak. Industri pribatuaren datuak ez dira ondo ezagutzen, batibat militar produktoak zibiltzat hartzen direlako.

Espainia 1983an sartu zen militar industria multinazionalan. Orduetik gero, Industri Ministeritza indartsu bultzatzen ari da sektore hau.

Gastu militarrek igoera handia izan du azken urteetan 1977ko 157.000 milioitik, 1991ko 858.000 milioitara igaroz. Gainera, 1994. urterako Espainiar Estatuak 7 billoi pezeta jarriko ditu militar ikerketerako, guda material erosteko eta ejerzitoa mantentzeko. Militar ikerketen gastuaren gehikuntza nabaria izan da azken bost urtetan. Gehikuntza hau NATOko egitarauan eta Europar gudate Hegazkinean parte hartzeagatik izan da. Espainiak militar produkzioaren erdia esportatzen du munduko lehenengo 10 esportatzaileen artean kokatuz. Esportazio hauek Hirugarren Mundura joaten dira. Guzi hau oso kezagarria da: Zertarako erosiko dituzte armak jateko ere ez badute.

J.A. NIETO «IRAULTZA»

